

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5176

588/2020 EBAZPENA, azaroaren 16koa, Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratuko Ibarako Lehen Mailako Arretako unitateburu eginkizunak esleitzen zaiozkion Iciar Oyarzabal Chasco andreari.

452/2020 Ebazpenaren bitartez, onartu egin zen Tolosaldeko ESiko Ibarako Lehen Mailako Arretako unitateburua izendatzeko deialdi publikoa.

Batzordeak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela, Iciar Oyarzabal Chasco andreak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hari esleitzea Tolosaldeko ESiko Ibarako Lehen Mailako Arretako unitateburu-eginkizunak.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Iciar Oyarzabal Chasco andreari esleitzea Tolosaldeko ESiko Ibarako Lehen Mailako Arretako unitateburu-eginkizunak.

Bigarrena.– Iciar Oyarzabal Chasco andreak bi eginkizun izango ditu: kudeaketa eta asistentzia ematea. Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratuko gerentearen mende egongo da zuzenean eta hierarkian. Bai Lehen Mailako Arretako unitateburu-eginkizunak egin bitartean bai haiek amaitu ostean, bere kategorian dagokion plazaren jabe izaten jarraituko du, eta hari lotutako oinarrizko funtzioak betetzen jarraituko du.

Hirugarrena.– Esleipenak ez dakar, inolaz ere, Lehen Mailako Arretako unitateburuaren eginkizunak edo ordainsariak finkatzea berariazko lanpostu gisa; izan ere, noiznahi erabaki ahal da eginkizun horien esleipenari amaiera ematea.

Laugarrena.– Interesdunak, eginkizun horietan diharduen bitartean, osagarri berezi bat jasoko du erantzukizunagatik.

Bosgarrena.– Izendapen honek 2020ko abenduaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Seigarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Goierri-Urola-Garaiko ESLari.

Zazpigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena EHAA n argitaratu eta hurrengo egunetik zenbaitzen hasita.

Tolosa, 2020ko azaroaren 16a.

Tolosaldeko ESiko zuzendari gerentea,
M.^a LUISA MERINO HERNÁNDEZ.